2016ko martxoaren 9a
Gorbeialde ALDIZKARIA
I Zenbakia / 2016




# Gorbeialde Aldizkaria

## GURE PRODUKTOREAK SARI-IRABAZLEAK

**2015eko amaieran eta 2016ko hasieran eskualdeko lehen sektoreko produktoreak egin daben lan baliotsuagatik sariak irabazi dabez.**

Pasadan abenduaren 15ean Bilboko Carlton Hotelean LORRAk eta kide laguntzailea dan Laboral Kutxak antolatutako lehenengoko lehiaketako sariak emon ziren, entitate biekaz lotatu dagozan nekazal-abeltzain ustiapen onenari saria emoteko eta aitortzeko. Lehenengo urtean antolatzen dan lehiaketa honetan 35 eskaera aurkeztu dira, 15 nekazal eta 20 abeltzain arlokoak, Bizkaiko ia azpisektore guztiak ordezkatuta gelditu.



Abeltzain arloan irabazlea Fikako Larrabe Oilotegi SAT ustiapena izan zan eta nekazal arloan Meñakako Monica Garrido eta Santos Serranoren ortuari- ustiapena.

Zeanuriko Puy Arrieta eta Jon Etxebarriaren "Ipiñaburu" ardi ustiategia finalista gelditu zan accesit bat lortuz, arrakasta handiko saria beste 20 parte hartzaileen maila ikusirik.



2016ko urtarrilaren 12an egin zan BBK Salan **2015eko San Tomas sariak** emateko jaialdia.

BBKren San Tomas sariek Bizkaiko baserritar eta ekoizleen jarduera aitortzen dabe, lehen sektore iraunkorraren garapenean, ekoizpen-prozesuko urrats guztiak ondo jagoten dauzan horretan.

**Txakoli Beltza** kategorian Urduñako Larrazabal-Durana senitarteko "Gure Ahaleginak" upeltegiko Txakoli Filoxera-k irabazi eban lehenengo saria.

Azkenik, pasadan urtarrilaren 18an eta San Antontxu azokaren programaren barruan, "Urigoiti Txorizoak" irabazi eban Euskadiko Txorizo Txapelketa, bere 20. edizioan. Lorea Momeñe abeltzaina da Orozkoko Urigoiti auzoan kokatzen dan ustiapen honen arduraduana, bertan "basetxerri" txarriak hazten dira, bere lehenengo aldian saria irabazi dau.

**Gure Zorionik beroenak !!!!!**

AURKIBIDEA:

-Gorbeialdeko Produktoreak
-Gorbeia Gozokia eta Pintxoa
- Irudi berria eta app turistikoa
- EJ eta Leader eskaerak

## PREMIOS A PRODUCTORES DE GORBEIALDEA

***El fin del año 2015 y el comienzo del 2016 ha traído premios y reconocimientos a la labor de los productores del sector primario de la comarca***

*El pasado 15 de diciembre en el Hotel Carlton de Bilbao se entregaron los premios del primen certamen organizado por LORRA y su socio colaborador Laboral Kutxa para reconocer y premiar a las mejores explotaciones agrícolas y ganaderas vinculadas con ambas entidades; concurso al que se han presentado en este primer año 35 solicitudes, 15 en la sección agrícola y 20 en la sección de ganadería, quedando reflejados casi todos los subsectores productivos de Bizkaia.*

*Los ganadores de este certamen, en la sección de ganadería fue la explotación avícola de puesta Larrabe Oilotegia SAT de Fika y en la sección agrícola la explotación hortícola bajo invernadero de los Titulares Mónica Garrido y Santos Serrano de Meñaka.*

*En la sección ganadera, la explotación de Ovino de Zeanuri Ipiñaburu regentada por Puy Arrieta y Jon Etxebarria, fue finalista consiguiendo un accésit, un gran logro teniendo en cuenta el nivel de los 20 participantes.*

*El 12 de enero se celebró en la Sala BBK la gala de entrega de los **Premios Santo Tomás 2015**.*




*Los Premios Santo Tomás de BBK reconocen la actividad de baserritarras y productores de Bizkaia, que contribuyen al desarrollo de un sector primario sostenible que cuida todos los pasos del proceso productivo.*

*En la categoría de **Txakoli Beltza** el primer premio fue para el Txakoli Filoxera de la Bodega Gure Ahaleginak de Orduña perteneciente a la familia Larrazabal Durana.*

*Por último, el pasado 18 de enero y dentro del programa de la feria de San Antontxu, "Urigoitiko Txorixoak" se alzó con el 20º concurso de Chorizos de Euskadi. La explotación sita en el barrio de Urigoiti de Orozko está regentada por la joven ganadera Lorea Momeñe cría cerdos de "basetxerri" y se ha alzado con el premio en su primera participación.*




***Felicidades a nuestros productores.!!!!***

**www.gorbeialdea.com**

# Ba datoz GORBEIA GOZOKIA eta GORBEIA PINTXOA!!

**Otsailaren asteburuan, Gorbeia Gune Turistikoak bultzatuta, Murgian 'Miniature' pintxo kongresuaren barruan, GORBEIA GOZOKIA eta GORBEIA PINTXOA sortzeko lehiaketak jarri ziren martxan.**

Lehenengoan, Usansoloko_Gorbeia iparraldeko Eduardo Bizkarra okin-gozogileak eta bere taldeak 3 proposamen ezberdin aurkeztu zituzten lehian: GAZTA ETA INTXAUR TRUFA, SAGAR HODEIA eta GAZTA GAILETA ERREGE-SAGAR GOZOKIZ BETETA. Azken hori, gaileta, atera zen garaile. Epaimahaiak gailetaren "zaporea eta ahoan utzitako Gorbeiako sagar eta Idiazabal gaztaren kutsuak" baloratu zituen, beste proposamenen gainetik.

Bigarren txapelketa aldiz, bertan egindako GORBEIA PINTXOA sortzeko asmoz, Ugaoko_Gorbeia iparraldeko Anaiak Tabernako Amaia Torresek irabazi zuen. Gorbeiako txahal ekologikoa, ardi-gazta ondua, perretxiko saltsa eta agrazoi zuriaren marmeladarekin egindako pintxoa izan da onena, epaimahaiaren ustez. Lehia handiko txapelketa izan zen, aurkarien maila altuagatik. Amaia Torresek bezala, Izarrako Doña Lola Hoteleko Yerai Repollesek eta Unai Arrausik, Murgiako Patroi Etxeko Ruben Gonzalezek, Orozkoko Itxina Tabernako Segis Rodriguezek eta Blanca Antoñanak, Zarateko sukaldaritza irakasleak eta gastronomia dibulgatzaileak, epaimahaiaren hitzetan, "oso proposamen originalak aurkeztu zituzten, ondo landuak, tokiko zaporeetan oinarrituta, lehiaketako arauek esaten zutena jarraituz".

Hemendik aurrera, Gorbeia Gune Turistikoak GORBEIA GAILETA eta GORBEIA PINTXOA ezagutaraziko ditu eskualdean. Horretarako establezimenduen eskura jarriko ditu errezetak, baldintza batzuk bete ondoren. Interesatuek, Gorbeialdeko teknikariekaz jar zaitezte harremanetan.

Azkenik, Gorbeialdek zorionak eman nahi dizkie Amaia Torres, Eduardo Bizkarra eta euren taldekoei. Eta bere esker beroenak baita GORBEIA PINTXOA lehiaketan parte hartu duzuen sukaldari guztiei eta PINTXO HERRIAN ekitaldian parte zenuten produktore guztiei ere.

Era berean eta beti egiten dugun moduan, Gorbeiako profesional guztiei hurrengoan parte hartzeko gonbitea luzatu nahi dizuegu; Gorbeia Pintxoa eta Gorbeia Gozokia bezalako ekimenak gure eskualdea bultzatzeko balio dutelako; eta guztiok elkarrekin indartsuagoak eta ikusgarriagoak garelako. Ondo izan! #

# ¡Ya tenemos DULCE GORBEIA y PINTXO GORBEIA!

***El último fin de semana de febrero y a iniciativa del Destino Turístico Gorbeia, se han celebrado sendos concursos para elegir el DULCE GORBEIA y el PINTXO GORBEIA. Ambas citas gastronómicas han tenido lugar en Murgia dentro del congreso de pintxos 'Miniature'.***

*En el primer concurso llegados desde Usansolo_Gorbeia norte, el panadero-pastelero Eduardo Bizkarra y su equipo presentaron 3 propuestas diferentes: Trufa de queso y nueces, Nube de manzana y Galleta de queso rellena de dulce de manzana reineta. Esta última fue la mejor, a juicio del jurado que valoraron "el sabor y los matices en boca del queso Idiazabal y la manzana de Gorbeia" por encima de las otras dos opciones.*

*En el segundo concurso, cuyo objetivo era elegir el PINTXO GORBEIA, ayer domingo por la mañana, la mejor propuesta fue la de Amaia Torres, de la Taberna Anaiak de Ugao_Gorbeia norte. Según el jurado el suyo fue el mejor pintxo: un bocado de Ternera ecológica con queso de oveja curado, salsa de setas y mermelada de agrazón blanco . No fue fácil la elección, debido al alto nivel de los rivales. Yerai Repollés y Unai Arrausi del Hotel Doña Lola, de Izarra; Rubén González de La Casa del Patrón, de Murgia; Segis Rodríguez de la Taberna Itxina, de Orozko; y la profesora de cocina y divulgadora gastronómica de Zarate, Blanca Antoñana, presentaron también "unos pintxos originales, bien elaborados, partiendo de sabores y productos locales de Gorbeia, tal y como marcaban las bases del concurso", en palabras del jurado.*

*De ahora en adelante, el Destino Turístico Gorbeia dará a conocer el PINTXO GORBEIA y la GALLETA GORBEIA en la comarca. Pare ello, los pondrá a disposición de los establecimientos que lo deseen, siempre que cumplan una serie de requisitos. Las personas interesadas podéis dirigiros al personal técnico de Gorbeialde.*

*Por último, desde Gorbeialde queremos felicitar a Amaia Torres, a Eduardo Bizkarra y a sus equipos por estos éxitos. Y agradecer su participación y su magnífica disposición al resto de cocineros y cocineras que habéis competido en el concurso del PINTXO GORBEIA y a los productores y productoras que participasteis en PINTXO HERRIAN.*

*De la misma forma y como hacemos siempre con todos los profesionales de Gorbeia, queremos animaros a participar en las próximas ocasiones. Porque iniciativas como el DULCE GORBEIA y el PINTXO GORBEIA nos sirven, a todos y a todas, para promocionar nuestra comarca. Y porque juntos, juntas, somos más fuertes y más visibles. Un saludo!*




***"El último fin de semana de febrero y a iniciativa del Destino Turístico Gorbeia, se han celebrado sendos concursos para elegir el DULCE GORBEIA y el PINTXO GORBEIA. "***






# IRUDI BERRIA ETA APP TURISTIKOA

Gorbeialde Landa Garapenerako Alkartetik komunikazio tresna berriak jarri ditugu martxan: irudi berria eta Gorbeia izeneko app turistikoa, hain zuzen ere. Helburua zein da? Turistengana eta bisitariengana hobeto eta zuzenago iristea. Horrela teknologia berriak eta irudi modernoagoa eta freskoagoa erabiliko ditugu zabaltzeko Bilbotik ordu erdira eta Gasteiztik ordu laurdenera gaudela, Euskadiren bihotz berdea garela eta gune zoragarriak ditugula gure baitan: Gorbeiako Parke Naturala, Euskadiko handiena; Urkiolako Parke Naturala, Uribarri-Ganboa eta Urrunagako urtegiak, Baltzola eta Mairuelegorretako kobazuloak, Itzinako biotopoa edota Goiuriko ur-jauzia. Dena Gorbeia mendiaren inguruetan, Euskadiko enblematikoenetako batean.

# *NUEVA MARCA Y APP TURISTICA*

*Desde la Asociación de Desarrollo Rural Gorbeialde, hemos puesto en marcha nuevas herramientas como la app turística Gorbeia y una nueva imagen de marca, que nos van a servir para llegar más y mejor a turistas y a visitantes que se acercan a nuestro destino. Queremos usar las nuevas tecnologías, y una imagen más fresca y más moderna para contarles que estamos a poco más de media hora desde Bilbao y a un cuarto de hora de Vitoria-Gasteiz; que somos el corazón verde del País Vasco y que tenemos zonas tan espectaculares como el Parque Natural del Gorbeia, el más grande de Euskadi; el Parque Natural de Urkiola, los embalses de Ullibarri-Ganboa y Urrunaga, las cuevas de Baltzola y Mairuelegorreta, el biotopo de Itzina, la cascada de Gujuli… Todo ello en torno al monte Gorbeia, uno de los más emblemáticos de Euskadi.*

Gorbeia Gorbeia Gorbeia Gorbeia Gorbeia Gorbeia

# EJ eta Leader-eko laguntzak: aurretik jakinarazteko eskaerak

Eusko Jaurlaritzako Ekonomia Garapen eta Lehiakortasuneko Sailburutik eta Mendinet Toki Ekintzako Taldetik (LEADER) aurtengo landaguneen garapenerako eta dibertsifikazio ekonomikorako laguntzak prestatzen ari dira.

Ondiño ez dakigu noiz argitaratuko diren baina aurreratu geinke aurtengo deialdietan, behingoz batzuetan, ez dira onartuko eginda dagozan inbertsioak ezta laguntzak Boletinean argitaratutako data baino lehenago hasitakoak.




Hau dala eta, laguntzak eskatuteko aukera eukiteko (ez galtzeko) nahiz eta inbertsioa eginda edo hasita egon, laguntzak argitaratu baino lehenago egingo diren jarduerak aurretik jakinean jartzeko sistema bat martxan ipini da.

Diruz lagundu daitezkeen eta laguntzak argitaratu baino lehenago hasteko diren jarduerak egiteko gogoa daukien tokiko-erakundeak, enpresak eta partikularrak **aurretik jakinarazteko eskaera** bat bete beharko dabe, gero laguntzak eskatzeko. Gestio hau Gorbeialden egin ahal da ze gu izango gara HAZIgaz batera inbertsioaren egoeraren akta egingo doguna

Landa eremuan edozein jarduera egiteko asmoa eukin ezkero Gorbeialdegaz jarri kontaktoan, bertan aztertu egingo dogu eta ahal bada prozesua martxan ipintzen hasiko gara.

# *Preaviso en ayudas de Gobierno Vasco y Leader*

*Desde la Consejería de Desarrollo Económico y Competitividad del Gobierno Vasco y desde el Grupo de Acción Local Mendinet (LEADER) se están preparando las ayudas destinadas al desarrollo y a la diversifica-ción económica de las zonas rurales para la convocatoria del presente año.*

*Aun no se sabe la fecha en la que se publicarán pero sí podemos adelantar que en las convocatorias de este año, o por lo menos en parte de ellas, no se recogerán las actuaciones que estén ejecutadas o comenzadas con anterioridad a la fecha de publicación de las ayudas en el Boletín Oficial.*

*En este sentido, se ha puesto en marcha un sistema de preaviso de las actuaciones que se quieran realizar antes de la publicación de las ayudas con el objetivo de que aun estando realizadas o comenzadas puedan concurrir a las ayudas.*

*Las entidades locales, empresas y particulares que realicen actuaciones que puedan ser subvencionables y quieran comenzarlas antes de la publicación deberán de rellenar una **solicitud de preaviso** si quieren posteriormente poder optar a las ayudas. Esta gestión os la podemos realizar desde Gorbeialde y seremos nosotros también los que posteriormente junto con HAZI realicemos el acta de no inicio.*

*En caso de tener pensado realizar cualquier actuación dentro del medio rural os podéis poner en contacto con Gorbeialde para analizarlo y en su caso poner en marcha el procedimiento.*

**Gorbeialde ALDIZKARIA**

*GORBEIALDE LANDA GARAPENERAKO ELKARTEA*
*Askatasun, 34-A*
*48143 -AREATZA-*

*Telefonoa: 94 631 55 25* *Faxa: 94 631 71 01*
*gorbeialde@gorbeialdea.com*

www.gorbeialdea.com



ARRATIA-NERBIOIKO LANDA GARAPENERAKO ELKARTEA
GORBEIALDE

Gorbeialde
Landa Garapenerako Alkartea
Asociación de Desarrollo Rural